

DONOSTIA / Idazten hasteko garaia

Iaz ehunka pertsona gerturatu ziren Kursaalean egin zuten sari banaketa ikustera.

LEHENENGO aldiz lehiaketan parte hartzera donostiar gazteak deitu zituztenetik, 18 urte pasa dira jada. Urteek aurrera egin ahala gehiago izan dira Koldo Mitxelena literatur sariketan haien lanak aurkeztu dituzten ikasleak. Orain arte 12.500 ikasletik gora izan dira parte hartu dutenak eta, batzuek, gainera, lan bat baino gehiagorekin. Guztira, epaimahaiko kideek 13.500 olerki, ipuin, eskutitz, komiki eta bertso irakurri eta epaitu dituzte.

Datu horiekin Koldo Mitxelena sariketa sendotuta dagoela garbi geratzen denez, aurtengo edizioan oraindik parte-hartzeari buruzko datuak positiboagoak izango direla espero dute. Zabalik dago jada ikasleentzat haien lanak presta-tzeko epea eta oraindik hilabete batzuk dituzte aurretik guztia bukatzeko: izan ere, datorren urteko otsailaren 16an bukatuko baita idazlanak aurkezteko epea.

Orain arte bezala, literatur lehiaketan 6 eta 18 urte arteko gazteek har dezakete parte, sei kategoriatan sailkatuta, haien adinaren arabera. Gainera, haien gustuko generoa aukera dezakete, bost ataletan banatzen baitute Koldo Mitxelena sariketa: olerkiak, ipuinak, gutunak, bertsoak eta komikiak epaituko dituzte.

Donostiako Euskararen Udal Patronatuak aurkeztu berri du aurtengo edizioa eta baita epaimahaia osatuko duten lagunen izena ere: Antton Olariaga komikigilea, Joxerra Garzia idazle eta bertsoan aditua, Pello Añorga ipuin egile eta kontalaria, Arantxa Urretabizkaia, Ixiar Rozas eta Inazio Mujika idazleak eta Mari Jose Olaziregi literatura kritikoa izango dira donostiar gazteen lanak epaituko dituztenak.

Gipuzkoar hiriburuko hainbat ikastetxetako ikasleek hartzen dute parte Koldo Mitxelena sariketan, edozein hezkuntza eredu jarraitzen dutela ere. Horrela, nahiz eta lan guztiek euskaraz behar duten izan, D ereduari ari direnentzat ez ezik, A eta B ereduari ikasten dutenentzat ere zabalik dago lehiaketa.

ESKU ORRIAK. Jakinarazpena

Guztiei aurtengo edizioa martxan dela jakinarazteko Euskararen Udal Patronatuak 26.000 esku orri argitaratu ditu eta ikastetxe, kultur etxe, liburutegi eta gaztelekuetan banatuko ditu, Donostia guztian zehar. Nahiz eta lanak aurkezteko epea otsailean bukatuko den, parte-hartzaileek ekainera arte ez dute ezagutuko epaimahaiaren erabakia. Ohi bezala, hil horren hasieran antolatuko dute sari banaketa ekitaldia.

Sari horiek jasotzeko taula gainera igoko diren gazte batzuk seguru aurreko urteetako eskarmentua dutenak izango direla. Dena den, epea zabaldu berria denez, guztiek dute orain haien aukera lumak atera eta buru belarri ipuin, gutun, olerki, bertso eta komiki ezin hobeak idazten hasteko.